

Gizarte-larrialdietarako laguntzak ez dira aldi berean ematen direnetakoak, dirutan ematen dira, eta subentzio modukoak dira. Hain zuzen ere, gastu batzuk behar-beharrezkoak dira gizarte-bazterkeriarik gerta ez dadin edo halako bazterkeriak konpontzeko, eta berariazko gastu horiek ordaintzeko nahikoa baliabiderik ez dutenentzako dira -eta berdin dio dena delako gastua arrunta edo ohiz kanpokoa den- laguntza hauek. Laguntza hauek berariazko honako gastu hauek ordaintzeko balio dezakete:

- Ohiko etxebizitza edo bizitokiaren alokairu-gastuak (etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren bitartez tramitatzen direnak izan ezik).
- Ohiko etxebizitza eskuratzearen ondotik eratorritako interes eta maileguak ordaintzeko gastuak gizarte-larrialdian egon aurretik.
- Ohiko etxebizitza edo bizitokia mantentzeko beharrezko gastuak (energia eta ur gastuak, eta beste mantenimendu gastu-batzuk, baina zabor gastuak, estolderia gastuak eta landa eta hiri izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ez).
- Beharrezko altzarien eta "Linea zuria" izeneko etxetresna elektrikoaren gastuak
- Etxebizitza egokitzeko, konpotzeko edota oinarrizko instalazioak egiteko gastuak.
- Oinarrizko beharrezko dagozkien gastuak (sistema publikoek ordaintzen ez dituzten jantzi, hezkuntza, prestakuntza eta osasun-zaintza).
- Alokairu gastuetatik, mantentze-gastuetatik eta interes eta mailegu gastuetatik eratorritako aurretiko zorpetze gastuak.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Eibarren erroldatuta egotea.
- Gutxienez eskabide aurkeztu baino lehen urtebete lehenago sortutako bizikidetzaren unitatea izatea. Epe hori bete behar izatea honako hauentzat geratuko da salbuetsita: adingabeak bere kargura dituztenentzat, bestelako egoerak direla-eta bizikidetzaren unitate berria osatzen dutenentzat, etxeko edo familia barruko indarkeriaren biktima direnentzat, eta 18 urte baino gutxiago izan eta legeak zehazten dituen egoeretakoren batean daudenentzat.
- Eskaera aurkeztu baino gutxienez sei hilabete aurretik Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako bateko erroldan egotea edo Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan bost urtez, etenik gabe, aurreko hamar urteen barruan erroldatuta egona izatea.
- Ez izatea etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren hartzailea. Baldintza hau ez da bete behar oinarrizko beharrezko dagozkien gastuei edo hauen ondorioz sorturiko zorrei aurre egiteko eskaerak direnean.
- Gizarte-larrialdietarako laguntzak alokairu-gastuei aurre egiteko erabiltzen direnean, ETXEBIDE zerbitzuan etxebizitza-eskatzailerik gisa izena emanda egotea. Baldintza hau ez da bete behar honako kasu hauetan:
 - GLL baliatzeko eskakizunak beteta dituztela, ETXEBIDEn sartzeko eskakizunak betetzen ez dituzten pertsonak, bizileku-eskakizuna nahiz baliatzeko gutxieneko ekonomikoak betetzen ez dituztelako.
 - 65 urtetik gorako pertsonak, zahartzaroko kotizaziopeko edo kotizazio gabeko pentsioen onuradunak, helbide berean 10 urte baino gehiagoz bizi direla egiaztatzen dutenak, edo gutxieneko epe hori betetzen ez badute ere, ohiko helbidean geratu beharra dutenak, dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren ustez.
- 18 urte edukitzea. Gutxieneko adin-muga horretatik salbu daude gazteago izanik ondorengo egoeraren batean daudenak:
 - Beste adingabe batzuk zein ahalmen-urrirasunen bat duten adindunak edo mendekotasuna onartuta duten adindunak ekonomikoki beren ardurapean izatea.
 - Aitarik eta amarik gabeko umezurtzak.
 - Ezkontuta edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez beste pertsona batekin loturik egotea gutxienez sei hilabete lehenagotik.
 - Etxeko tratatu txarraren biktimak izatea.
- Behar adina baliabiderik ez edukitzea.
- Legez ezarritako zenbatekoa baino balio handiagoko ondarrerik ez izatea.
- Udalak onartzen dituen beste baldintzak.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Bizikidetzaren unitate ekonomiko independentearen gehieneko zenbatekoak urtero ezartzen dira.

ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Gizarte Larrialdietarako Laguntza eskuratu duten onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Laguntzak zertarako eman diren, gero hartarako erabiltzea.
- Laguntzak jasotzeko baldintzekin zerikusia duen ezer gertatzen bada, laguntzak -gaur egun onarturik dauden laguntzez ari gara- Eibarko udalari jakinaraztea, gertatu dena gertatu eta gehienez ere hamabost egun naturaleko epean.
- Onuradunak ohiko bizitokia ezertan aldatzen badu, laguntzak -gaur egun onarturik dauden laguntzez ari gara- Eibarko udalari jakinaraztea, gehienez ere hamabost egun naturaleko epean, hori gertatzen den egunetik hasita.
- Akatsen bat dela-eta eskuraturiko kopuruak edo dagokionetik gora eskuraturiko kopuruak itzultzea.
- Administrazioaren aurrera agertzea eta elkarlanean aritzea, hala eskatzen dionean gizarte-zerbitzuetako gaietan eskumena duten erakundeetako edozeinek.
- Laguntza eskatu zen helbururako erabili dela frogatzea, behar den bezala eta ezarritako epeetan.